

Hagina (*Taxus baccata* L.)

Aurrean duzun koniferoak, ez du kono edo pinabururik, ezta erretxinik ere. Mitologiari eta historiari lotutako zuhaitz honen presentzia urria da gure basoetan baina ohikoa lorategietan eta ornamentazioan. Basoetan gehienetan isolatuta edo unada txikiak osatuz aurkituko duzu pagadien itzalpean.

Bere urritasunak arrazoi bikoitza du: birsorkuntza geldoa duen espeziea da eta bestetik bere zur bikaina antzinatik oso erabilia izan da. Agian entzungo zenuen " izotzetako gizona" Ötzi -ren ondoan aurkitutako ondasunen artean, pieza bakarreko 1,83 cm-ko amaitu gabeko arkuia izan dela. Arku hori haginaren zurez egindakoa da!

Jakina da, halaber, britainiar uharteetan hagin populazioak desagertzeaz egoteko arrazoietakoa bat ingeles arku luze ospetsuaren fabrikazioa izan zela. Hori izan baitzen galestarrek eta ingelesek XIV. eta XV. mendeetan Ehun Urteko gerran frantsesen aurka erabilitako arma nagusia.

Baina, zalantzarik gabe, haginaren ezaugarriak ezagunena toxikotasuna da, azalean, hostoetan eta hazietan baitago, baina ez ariloan, hazia estaltzen duen estalki mamitsu gorrian.

Taxina, nerbio-sisteman eta bihotzean eragiten duen toxikoen nahasketa konplexua da, hilgarria gizakiarentzat eta animalia batzuentzat. Hala ere, taxina hainbat minbizi motatan zelulak hazteko inhibitzaile indartsu gisa aurkitu zen taxolaren oinarria da.

Hagina espezie dioikoa da, hau da, ale arrak eta emeak oin desberdinetan aurkitzen dira.

